

## **Liburutegirako arduraduna behar dute Anoetan**

### **Abuztuaren 14an bukatuko da udaletxean eskaerak aurkezteko epea**

Anoeta. Anoetako Udalak liburutegiko arduradun lanpostua eskaintzen du aldi baterako, eta lan poltsa osatzeko deialdia egin du. Eskaerak aurkezteko azken eguna abuztuaren 14a izango dela jakinarazi dute.

Hautaketa prozesuan onartua izan eta parte hartzeko zenbait baldintzak bete beharko dira. Lan kontratu bat izenpetzeko legeak eskatutako baldintzak bete beharko dira; gutxienez 16 urte beteta eduki beharko dira; goi mailako Batxilergo titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketa titulua edo indarrean dagoen legediak parekotasun hartzen duen beste edozein titulu eduki; edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Bestalde, Absysnet programa erabiltzen jakin beharko da. Zentzu honetan, hautagaiek programa hori erabili dutela egiazta-tzen duen agiririk badute aurkeztu beharko dute.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerak Anoetako udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira bulego ordutegian. >m.s.s.